



**Arartekoaren 3/2018/RGO Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 24koa. Horren bidez, iradokizuna ematen da Gipuzkoako Foru Aldundiak familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrei egiten dien lehenengo harreraren inguruan.**

### Aurrekariak

2016ko azken hilabeteetan eta 2017ko udatik aurrera intentsitate handiagorekin antzeman denez, nabarmen igo da Euskadira familiarik gabe heltzen diren etorkin adingabeen kopurua, lurralde historikoen artean aldeak badaude ere. Etorkin olde handiago horrek tentsio handia sortu du babesgabeko haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzuen sistemako baliabideen sarean, non erantzuten baitzaie adingabe horien beharrei. Zailtasunak egon badaudela jakinda eta zentroetan pertsona gehiegi egon daitezkeelako ematen den arretaz kezkatuta, Arartekoak beharrezkotzat jo du familiarik gabeko adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera zentroak (edo lehenengo harrera zentroak) bisitatzea, lurralde historiko guztietan. Gipuzkoan, Arartekoko langileek Uba zentroa bisitatu zuten, azaroaren 28an.

#### **1. *Bisitari behatutakoa eta jasotakoa.***

2017ko uztailan, zentroak 22 itunpeko plaza zituen. Gazte gehiago etorri zirenez, 26ra igo zen plaza kopurua eta orain handiagotzeko prozesuan daude, 31 plaza izateko.

Bisitaren egunean, bakarrik heldu ziren 33 adingabe atzerritar zeuden zentroan, bertan garatzen diren beste programa batzuetan parte hartzen duten gazteez gain (nerabe bat, 0-17 urte bitarteko haur eta nerabeentzako larrialdiko harrera programako 0. zentrokoa; neurri juridikoen jarraipeneko programan 4 gazte – asteburuetan– eta beste bat, Bertatik programakoa, hau da, gaua igaro gabe).

Zerbitzuaren arduradunak jakinarazi zien Arartekoko langileei plaza gehiago eskatzeaz gain, espazioak berrantolatu egin zirela, arreta hobea emateko:

- 1. solairua: 14 adingabe atzerritar, programa eraginkorragoan. Uba zentroa premiazko harrerako baliabide gisa sortu zen arren, hau da, egonaldi laburrak egiteko, horiek luzatu egiten dira (7-8 hilabete), sarean gehiegizko okupazioa dela medio. Hortaz, zentro horretan lehenago programatuta ez zeuden jarduerak egiten dira talde horrekin. Adingabeak 2 oheko logeletan banatuta daude; ohe guztiek behar bezalako ohe-jantzia dute.
- 2. solairua: 19 adingabe atzerritar; horietako 14-15 gaztek dagoeneko 3 hilabete inguru daramatzate zentroan. Horiekin ere jarduerak egiten dira, baina intentsitate gutxiagokoak; gaztelania irakasten zaie batez ere. 4 iritsi berriak dira. Logelak 1. solairukoak antzekoak dira; horietako batzuek ohe gehigarri bat dute. Horiek ere behar bezala jantzita daude.





- 3. solairua: nerabeak eta gazteenak, apartamentu bietan.

Adingabe atzerritarren profila hauxe da: mutil gazteak (14-15 urte), gehienak Marokokoak. % 80 iragaitzaz daude; Gipuzkoan ez direla geratuko eta beste toki batera joan nahi dutela diote. Gipuzkoan geratzeko asmoz etortzen diren gainerako % 20 horietatik batzuek familia handia dute lurralde horretan. Familia horiek ez dute baliabiderik gazteak hartzeko, baina Gipuzkoan bizi direnez, egoitza-harreraren hautabideei buruzko hausnarketarako bidea irekitzen da.

Foru Aldundia Ministerio Fiskalean eskaerak aurkezten hasi da, dokumenturik gabeko gazteen kasuetan, adin nagusikoak direlako zantzuak antzematen badira, adina zehazteko probak egiteko. Gaurdaino, Gipuzkoan indarrean dagoen protokoloa –bakarrik dauden adingabe atzerritarren premiazko harrerari buruzkoa– jarraikiz, segurtasun-kidegoek gazteak premiazko harrera zentrorra eramaten zituzten, adingabeak zirela egiaztatu ondoren. Dokumentazioari buruzko edo probak egiteko beharrari buruzko erabakia babesik gabeko haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzuetan sartu aurretik hartzen zen. Alabaina, azaltzen dutenez, sistema horrek ez zuen ondo funtzionatzen. Hori dela eta, foru sailak Fiskaltzarekin bilera egiteko eskatu zuen; bileran erabaki zuten foru erakundeak egingo zuela probak egiteko eskaera, behar bezalako arrazoibidea azalduta.

Egun, prozesua honela garatzen da:

- Dokumenturik gabeko adingabeen kasuetan (“zehaztu gabeko adina”, hau da, haiek esandako adina dutenen kasuetan) edo, gutxitan, pasaportearen adierazitako adinaren eta hazpegi fisikoen artean desadostasun handiak antzematen direnean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaera egiten dio Ministerio Fiskalari, adina zehazteko probak egin ditzan.
- Ministerio Fiskalak hilabete inguru behar izaten du baimena emateko.
- Kontsulta egiteko (karpo-hezurraren erradiografiak, ortopantomografia eta miaketa forentsea), beste hilabete bat behar izaten dute.
- Beste bi aste, fiskaltzaren erabakia jasotzeko.

Hezitzaileen taldea handitu egin da; izan ere, gaur egun, 8 langile dira eguneko txandan lan egiten dutenak, eta 4 hezitzaile, gaueko txandan (solairu bakoitzean bat eta beste bat zentroan ibiltzen dena). Guztira, 56 langile dira. Zailtasunak izaten dituzte zerbitzua betetzeko egokiak diren profesionalak aurkitzeko (adibidez, esperientzia dutenak) eta lanean hasten den pertsonak behar duen denboran berarekin egoteko. Orain arte erantzuna egokia izan da, baina gero eta gehiago nabaritzen da aspalditik egiten ari den gehiegizko esfortzua.

Gazteen jatorrizko herrialdea dela eta, zentroak harreman ugari izaten du Marokoko Kontsulatuarekin, eta horrek nahiko "azkar" kudeatzen ditu dokumentazioa lortzeko izapideak: pasaportearen egiteko hilabete bat behar da, eta beste hilabete bat, Karta Nazionala ateratzeko.





## Gogoetak

1. Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren oinarrietako bat honako hau da: zerbitzuak, baliabideak, zentroak egituratzea, bizitzeko eta erabat garatzeko aukera ematen duen bizitoki bat lortzeko, haur eta nerabeen eskubideak defendatzen dituzten nazioarteko erakundeen gomendioekin bat. Hortaz, zentro txikiak aukeratzeko dira, profesionalen eta haurren proportzio egokia dutenak, non posible den konfiantza-harremanak sortzea eta erreferentzia bihurtzea, bizitzeko eta ikasteko laguntza, familia batek eskaintzen duena bezalakoa, eman ahal izateko. Premiazko harrera programetan denboraldi baterako bakarrik sartzen bada ere, egoitza-zentroen gehieneko edukiera ere mugatu da dekretuaren bidez (ikus gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren 6. eta 44. artikulua).

Araudiak ezarritako parametro horiekin bat, 2017ko uztailera arte, Ubako premiazko harrera zentroak 22 lagun hartzeko prestatuta zegoen; gero, 26 plaza izateko zabaldu zen; eta orain 31 plaza izatea lortu nahi da, kopuru hori ezarritako gehieneko edukiera baino apur bat handiagoa bada ere. Une bakoitzean zehaztutako edukieraren arabera, zerbitzuak behar dituen baliabide materialak eta giza-baliabideak jaso ditu.

2. 2016ko azken hilabeteetan eta 2017an zehar, asko areagotu da Gipuzkoara (eta hain zuzen, premiazko harrera zentrori) heldu diren eta familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren kopurua. Egoera horretan, adingabeen kopurua etengabe igotzen ari denean, foru administrazioak zailtasunak ditu arreta eskaintzeko; onartu beharra dago zaila dela, baliabide publikoak efizientziaz kudeatu nahi izanez gero, zentroak irekita mantentzea, noiz erabiliko zain; ondorioz, behin sortutako baliabide gehienak ez dira aldatzen (plaza batzuk libre dituzten arren). Heltzen diren pertsonen kopurua, hala ere, ezin da aurreikusi; baliteke aldizkakoa edo iragankorra izatea, hortaz, ulergarria da batzuetan, aldi laburretan, erabiltzaileen kopurua gehiegizkoa izatea.

Gaur egungoa, berriz, ezin da jo aldizkako igoeratzat edo egoera koitunturaltzat. Aurrekarietan aipatu bezala, lehenengo harrera zentroetara heltzen diren adingabeen kopurua, jaitsi beharrean, igotzen zihoan 2017ko hilabeteak aurrera joan ahala. Ondorioz, Uba zentroan pertsona gehiegi bizi dira (33 lagun); bisita egin zenean, kopuru hori ezaugarri horiek dituen zentro bati dagokion gehieneko edukiera baino apur bat handiagoa izan arren, gerta daiteke gehiegizko okupazioaren maila bere horretan geratzea edo areagotzea, ez baitirudi etortzen diren gazteen kopurua epe laburrean gutxituko denik.

Gehiegizko okupazioa gorabehera, aurrekarietan esan bezala, adingabeei arreta emateko baldintzak ez dira txarrak. Ostatuari eta janariari dagokienez,





administrazioa gai izan da oinarrizko beharrak betetzen jarraitzeko, zentroan bizi ohi diren beste gazteen kasuan egiten duen bezala; langileen taldea handitu egin du eta gai da zentroaren eginkizuna betetzeko, hau da, orientabideak eta heziketa emateko. Gauzak horrela, erakunde honen eta galdetutako pertsonen arabera, bistakoa da gero eta adingabe gehiago (aurretik ikusi ezin daitekeen kopuruan) heltzeari loturiko gehiegizko esfortzuak azkenean eragin txarra izan dezakeela zentroetan ematen den arretaren kalitatean.

3. Azken gogoetak migrazio prozesuekin du zerikusia, horien baitan gertatzen baita adingabe horiek toki batetik bestera joateko joera. Fenomeno hori tokiko maila baino askoz harago doa eta ikuspuntu zabalagoa eskatzen du; izan ere, mundu mailan gertatzen ari da, konplexua da eta eragile asko ditu. Mundu mailakoa izatea ezin da inola ere argudio gisa erabili gure lurraldera heltzen diren gazteei arreta emateko ardura alde batera uzteko; hala ere, hausnarketa zabalagoa oinarri hartuta jokatu behar da, eta horretan foru administrazioak parte har dezake.

Erakunde honen eskumenaren muga, Arartekoak ez ditu proposatuko autonomia-erkidegotik kanpo egin beharreko jarduketak (horiek ere egin behar direla jakinda ere). Hala ere, Arartekoaren iritziz, Euskadi, gizarte gisa, hemen aztertzen ari dena bezalako egoeretan ematen duen erantzunaren bitartez definitzen da. Jakina denez, euskal erakundeek elkartasunaren ikuspegitik bideratzen dute beren jarduna eta ahaleginak egiten dituzte etorkinen beharrei abegikortasunez erantzuteko. Hori azalduta, Arartekoak uste du Euskal Autonomia Erkidego osoaren mailan jardun behar dela familiarik gabe dauden adingabe atzeritarren beharrei erantzuteko, parte hartzen duten erakunde guztien arteko hausnarketa oinarri hartuta. Erakunde honen iritziz, lurralde guztiek era koordinatuan eta solidarioan erantzun behar dute, bestela ezinezkoa izango baita oraingoa bezalako egoerari aurre egitea, "zentroek gainezka egiten dutenean". Testuinguru honetan, komenigarria izango litzateke jarduteko protokolo komuna ezartzea, 131/2008 Dekretuak eskatu duena betez; horrela, aukera izango litzateke estatu mailako protokoloaren mugak gainditzeko eta Arartekoak bultzatzen duen hausnarketa partekatuen ondorioz zalantzarik gabe sortuko diren beste kontu batzuk behar bezala lantzeko.

## IRADOKIZUNA

Hori dela eta, Arartekoak amaitutzat jotzen du bere esku-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiari honako iradokizun hauek eginez:

- Erne egon dadin ebazpen honen gogoetekin zerikusia duten kontuak direla eta, batez ere, etorkizun hurbilean gerta daitekeen gehiegizko okupazioa dela eta.





- Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek, familiarik gabeko adingabeen egoera aztertu eta horri elkarren artean aurre egiteko asmoz, antola ditzaketen ekimenetan parte har dezan.

